

1. AKTA

Elixabete Echanove Landajuela andreak, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea den aldetik, urtarrilaren 14an egindako bilera-deia dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko kide hauek elkartu dira Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 26ko 16:00etan:

- Ricardo Egiguren Mendieta
- Joaquín Giménez García
- Javier Hernáez Manrique
- José Antonio Nieto Antón
- Estefanía Ocáriz Passevante
- Miren Ortubay Fuentes

Bileran erabaki hauek hartu dira:

1.- Joaquín Giménez García jauna Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko buru izendatzea.

2.- Batzordeko kideek jakinarazi dute jaso dutela Keltse Eiguren Alberdi Getxoko Udaleko Herritarren Segurtasuneko zinegotziak bidalitako idazkia, [REDACTED] andreak Udal horretako Herritarren Informazio Batzordean aurkeztutakoa; eta batzordekideek zinegotzi horri eskatu diote idazki hori eragin duten egitateekin lotutako aurrekariak ahalik eta lasterren helarazteko.

Bilera 18:00etan amaitu da.